# HOGOITA ZAZPIGARREN ERAKASPENA 

## ELHEKETA : ASTE HUNTAKO SOLAS GAIA

1. Matxin nolako gizona zen?
2. Eta Ganix? Zer berexdura zuen Matxinekin.
3. Matxinen asmua nolakoa zen?

## Senpere Elizako bestak. OIHANALDEKO BASKARITIK LANDA -5-

Esku zarta zonbeit aditu ziren, Ganixen goresteko, eta Ganix, beltxaran bere ile eta muztatxen azpian, handi handia itzuli zen Matxinen aldera.

Ttiki ttikia, ile luxe eta legun batzuekin, hirri maite bat ezpain xokoan, hirri maltzur bat begietan, kapelua bere eskuarekin *murdukatzen*[27] zuela harek ere, zalu zalua —zaluegi behar bada— tik eta tak lothua zen Matxin Ganixen *urari*.

*Badut uste gaur Ganix ai den jostetaka,*
*Arnoa baino hobe elnez ur-barrika;*
*Hameka aldiz Ganix Matxinek badauka*
*Senperen ikusirik arnoan ithoka.*

Hango hirriak orduan, eta esku zartak; Matxinek bere persua akabatu ere gabe, halako zerbeit bazuten asmaturik han zirenek orok. Eta beha zauden bakarrik, *nola* koblariak bururatuko zuen eta zer tankakoarekin,[28] guziek buruan birilkatzen zuten gogoeta. Begiak ñir ñir atseginez argituak, azken azken liztafin sista igurikatzen zuten, laugarren phondu bakotxean. Eta Ganix eta Matxin zinez hazkar ziren hortan, Ganixek hobekixago zeramala solasa, gehixago ere bazakielakotz behar bada; bainan edo zein sail har zezala, gainean berehala zuen Matxin, bere asmu xorrotxarekin. Biba Ganix, biba Matxin! Eta zinez, pilota partida batean *bezala* ez bazen, *bertze hainbertze* bederen loriatua zagon hango jendea.

## 32. EGON - Indicatif

| Présent | | Imparfait | |
|---|---|---|---|
| Ni nago | = je reste | N. nindagon | = je restais |
| i hago | = tu restes | H. hindagon | = tu restais |
| Zu zaude | = vous restez | Z. zinauden | = vous restiez |
| Hura dago | = il reste | H. zagon | = il restait |
| Gu gaude | = nous restons | G. ginauden | = nous restions |
| Zuek zaudezte | = vous restez | Z. zinaudezten | = vous restiez |
| Hek daude | = ils restent | H. zauden | = ils restaient |

### Impératif

| | |
|---|---|
| Hi hago | = Reste |
| Zu zaude | = Restez |
| Hura bego | = Qu'il reste |
| " gauden | = Restons |
| Zuek zaudezte | = Restez |
| Hek beude | = Qu'ils restent |

## (III) ADITZ IKASKUNTZA

31. Matxinek badauka. 32. Beha zauden 33. Zeramala. 34. Bazakielakotz. 35. Har zezala.

### 31. IDUKI - Indicatif Présent.

#### Singulier

**Hura = le, la**

| | |
|---|---|
| Nik daukat | = je le tiens |
| Hik daukak/n | = tu le tiens |
| Zuk daukazu | = vous le tenez |
| Harek dauka | = il le tient |
| Guk daukagu | = nous le tenons |
| Zuek daukazue | = vous le tenez |
| Heiek daukate | = ils le tiennent |

**Ni = me, moi**

| | |
|---|---|
| Hik naukak/n | = tu me tiens |
| Zuk naukazu | = vous me tenez |
| Harek nauka | = il me tient |
| Zuek naukazue | = vous me tenez |
| Heiek naukate | = ils me tiennent |

**Zu = vous (s.)**

| | |
|---|---|
| Nik haukat | = je te tiens |
| Nik zaukzat | = je vous tiens |
| Harek zaukza | = il vous tient |
| Guk zaukzagu | = nous vous tenons |
| Heiek zaukzate | = ils vous tiennent |

### 33. Hura = le, la. Imparfait

| | |
|---|---|
| Nik neraman | = je l'emmenais |
| Hik heraman | = tu l'emmenais |
| Zuk zineraman | = vous l'emmeniez |
| Harek zeraman | = il l'emmenait |
| Guk gineraman | = nous l'emmenions |
| Zuek zineramaten | = vous l'emmeniez |
| Heiek zeramaten | = ils l'emmenaient |